

## Selma Huxley, euskaldunon lagun ona (1927-2020)

**Jerardo Elortza Egaña**

*Historialaria*

*Jasotze data: 2020ko irailaren 27an  
Onartze data: 2020ko irailaren 30ean*

2020ko maiatzaren 4an zendu zen Erresuma Batuko Chichester hirian Selma Huxley ikerlari britaniarra, 93 urte zituela. Londresen jaio zen 1927ko martxoaren 8an, zientzialari eta idazle ospetsuak eman zituen familia baten baitan. Adibidez, Thomas Henry Huxley birraitona (1825-1895) Charles Darwin naturalistaren adiskiderik minena eta defendatzailearik sutsuena izan zen; eta honen hiru biloba ere arlo desberdinetan nabarmendu ziren: Julien Huxley (1887-1975) biologo eta humanista, Unesco erakundeko lehen idazkaria; Aldous Huxley (1894-1963) idazle eta filosofo famatua; edota Andrew Huxley (1917-2012) fisiologo eta biofisikoa, 1963ko Fisiologia eta Medikuntza Nobel Saria.

### HAURTZAROA ETA GAZTAROA

Azken hiruren lehengusua genuen Michael H. Huxley (1899-1979), Selmaren aita; diplomatikoa eta editorea, Royal Geographical Society kultura-erakundearen Geographical Magazine aldizkaria sortu eta argitaratu zuen 1935ean. Ama, Ottilie de Lotbinière (1902-1991), Quebec eta Kanadako historian garrantzia handia izandako leinu bateko kidea zen. Aitaren lanbidea zela eta, Selmari txikitatik tokatu zitzaion batera eta bestera ibiltzea. Estatu Batuetan bizi izan zen haurtzaroan (1930-1935) eta nerabezaroan (1940-1944). Baina II. mundu-gerrako azken urteetan, ezin geldirik egon, eta Londresera itzuli zen zaurituak zaintzera. Gerora soldaduen haurren ardura ere hartu zuen. Zeregin horrekin Parisera joateko aukera izan zuen ume batzuk eramatera, eta bertan geratu zen aldi batean, haurrak zaindu eta ingeles-eskolak emanez. Ingalaterrara bueltatu eta unibertsitate-ikasketak burutu zituen; berauek bukatzean, kartografia-laguntzaile gisa aritu zen Royal Geographical Society-n 1949an hilabete batzuetan.

Alabaina, 1950ean Kanadara jo zuen amaren aldetiko senideak bisitatzen. Montrealen gelditzea pentsatu eta, hainbat lanetan saiatu ondoren, McGill unibertsitatean jardun zuen liburuzain moduan 1951tik 1954ra. Hantxe ezagutu zuen Brian Barkham

arkitekto britaniarra (1929-1964). Brian Ingalaterratik joana zen Montrealgo unibertsitate hartara, graduondoko ikastaro bat egitera. Urte pare bat lehenago, Espainiatik zehar lagun batekin motorrean burututako bidaia batean Euskal Herrira ere heldu zen; Goierri aldean gustatu omen zitzaion bereziki; hango paisaiak, herritxoak eta baserriak ez ezik, inguru haietako pertsona batzuk ere ezagutu eta eurekin adiskidetasun-harreman estuak izan zituen. Eta, horren ondorioz, Barkham gazteak bere tesia euskal landa-arkitekturaz egitea erabaki zuen.

## SENAR-EMAZTEAK ETA SEME-ALABAK KANADAN

Selma eta Brian 1954an ezkondu eta Otawako pisu batera aldatu ziren, eta laster hiriburu ondoko herri batean pixkanaka beste etxetxo bat jasotzeari ere ekin zioten. Berehala hazi zen familia, elkarren segidan jaio baitzitzaizkien lau seme-alaba: Thomas, Oriana, Michael eta Serena. Dena den, senarrak bere Euskal Herri kuttuna emazteari erakutsi gura zionez, honaino iritsi ziren 1956an, hemengo parajeak ikusi eta lagunak bisitatzeraz; besteren artean, Pio Montoya Arizmendi apaiz eta idazle abertzalea nahiz Miren eta Karmele Goñi Auzmendi ahizpa tolosarrak. Orduan entzun zituen Selmak lehenbizikoz XVI. eta XVII. mendeetako euskal arrantzaleek egungo Kanada eta Ternuako ur-lurretan gauzatutako lan eta ibilerei buruzko berri eta albisteak.

Lanik ez zitzaion falta arkitekto gazteari. Hainbat obra pribatu zein publikoren eraikuntzan parte hartu zuen Ottawa inguruan, urte gutxiren buruan sari batzuk ere lortuz. Ez zuen, ordea, luzaroan iraun ibilbide emankor hark, gaixoaldi labor baina larri baten eraginez, 1964an hil baitzen Brian Barkham. Selma alargunak 37 urte zeuzkan eta bi eta bederatzi urte arteko lau seme-alaba. Huxley anderea, baina, beti izan zen *mulier fortis*, emakume kementsua, eta zoritxar latz hari aurre egiteko indarrak bildu zituen, bere haurren eguneroko premiei erantzun ahal izateko. Zenbait lani heldu zion, batez ere Kanadako Leku Historiko Nazionalak deituriko gobernu-instituzioan historialari eta ikerlari zereginetan. Louisbourg-eko antzinako gotorlekua eta portua eraberritzeko lanetan ziharduela, konturatu zen XVIII. gizaldiko erreferentzietan sarritan agertzen zirela Ipar Euskal Herriko arrantzaleei buruzko aipamenak. Horrek bere arreta piztu zuen.

## KANADATIK MEXIKORA

Gaiak erakartzen zuen, baina hartarako informazio-iturri egokiak Kanadan baino gehiago Espainian eta Frantziako artxiboetan egon zitezkeela iruditzen zitzaion, Euskal Herrikoetan batik bat. Selmak ingelesa eta frantsesa ongi menderatu arren, gaztelania ikasi beharrean aurkitu zen hemengo eskribauen dokumentu zaharrak ulertzen hasteko. Hala ere, zuzenean Europa aldera etorri ordez, 1969an Mexikora abiatu zen autoz, Estatu



Batuak goitik behera zeharkatuz. Hiriburutik igaro ondoren, adiskide batzuen aholkuz eta laguntzaz, Guadalajara inguruko herri batean kokatu ziren, Chapala lakutik hurrean. Han hiru urtetan familia osoak ikasi zuen gaztelaniaz, gazteak amak baino errazago, jakina. Ohiko gastuak ordaindu ahal izateko, Selmak Guadalarako institutu batean jardun zuen ingelesa irakasten.

## MEXIKOTIK EUSKAL HERRIRA

Mexikon hiru bat urte pasatu ostean, Euskal Herrirako bidea hartu zuen familia osoak, kargaz gain bidaiariak ere zeramatzan Covadonga izeneko barkuan. Serena alaba gazteenak gogoratzen duen bezala, Veracruzetik Santurtzirainoko itsasketa ez zitzaien oso lasaia suertatu, urakan bat saihestu behar izan zutelako. Bilbon ostatua hartu bezain laster, jakin zuen Selmak Kanadako Gobernuaren Arteen Kontseiluari eskatua zion ikerketa-laguntza ukatu egin zitzaiola, berak proposaturiko lana jadanik burutua zegoela adieraziz. Egia da urtebete lehenago René Belanger zeritzan historialari kanadiarrak *Les basque dan l'estuaire du Saint Laurent (1535-1635)* lana argitaratu zuela Quebec-en, Selmak ikertu nahi zuenarekin zerikusi zuzen samarra zeukana. Baina, gerora garbi asko frogatu zen legez, Belanger-en liburuak ez zuen inondik inora gaia agortzen.

Eragozpenak eragozpen, Huxley andreak ez zuen etsi. Manuel Basas, Bilboko udal Artxibo eta Liburutegiko zuzendariaren kontseiluari jarraituz, Burgos eta Valladolideko artxiboetan arakatu zuen. Saiakera horrek uste gabeko fruituak eman zizkion. Alabaina, XVI. mendeko paper zaharretan eskribauak zerabilten grafia aski gaitza zen maiz irakurtzeko. Hori dela eta, paleografia-ikastaro bat egin behar izan zuen Deustuko unibertsitatean, batetik eta bestetik eskuratzen ari zen informazioa sailkatzen zuen bitartean. Bestalde, bere egoera ekonomiko larriaren aringarri, mezenas anonimo batek mila dolarreko dohaintza igorri zion, eta Kanadako Artxibo Publikoetarako materialak hemengo iturrietan bilatuz, beste diru-iturri apal bat lortu zuen.

## OÑATIKO ARTXIBOA ETA BESTE BATZUK

Ikerketa aurrera zihoan heinean, eta haritik tiraka, berari interesatzen zitzaion dokumentazio asko Gipuzkoan egon zitekeela ohartu zen: Oñatiko unibertsitate zaharrean gordetzen zen Protokoloen Artxiboan, hain zuzen ere. Horrenbestez, 1973ko uztailean familia Oñatira aldatu eta plaza nagusiko 5.ean jarri ziren bizitzen, artxibotik hurrean. Artean ez zegoen artxibozain ofizialik; gordailu haren ardura Jose Maria Agirrebaltzategik, parrokiako abade batek hartzen zuen neurri batean. Selmari asko erraztu zion paper pila haiek kontsultatzeko aukera, askotan artxiboan bera bakarrik geratzen zelarik berandura arte.



*Oñatiko artxiboan. Argazkia: Jerardo Elortza Egaña.*



Nire emaztea zena, Tere Letamendi, eta biok laster hasi ginen harremanetan Bar-kham-darrekin, 1974ko uztailean plazako eraikin berera aldatu ginelako: haiek lehenengo pisuan bizi ziren eta gu bigarrenean. Sarri samar elkartzen ginen euren nahiz geure etxean, afari-pasadatxoa eta solasaldi luzeak eginez. Gure familietako gorabeherak kontatzen genizkion elkarri. Horrenbestez, pitinka-pitinka jakin genituen Selmaren ikerketaren gaineko zertzeladak, aurrerapausoak eta bestelako xehetasunak. Ternua eta Labradorreko kontuak oso etxeko bilakatu zitzaizkigun.

Denbora gutxian material berri ugari topatu zuen Protokoloen Artxiboan. Ez zen, ordea, Oñatikora soilik mugatu. Gorago aipatutakoez gainera, beste leku eta era askotako iturriak bilatzen saiatu zen Euskal Herriko nahiz hemendik kanpoko udal, parrokia eta gainontzeko erakundeetan. Lan eskerga suposatzen zuen bildutako datu-pila ikaragarri hura garai hartako metodologia tradizionalarekin aztertu, sailkatu, erkatu eta taxutzea, bere xede nagusirako egoki harilkatuz eta josiz. Selmaren txindurri-lan harrigarriak gero eta nabarmenago erakutsi zuen honako hau: XVI. gizaldian arrantzale euskaldunak ez zirela Kanadako mendebaldeko kostara bakailaotara soilik joaten, baizik eta mortu zail

eta hotz haietan balea-industria oparoa ere sortu eta garatu zutela. Ramon Martín Sukia artxibozainaren esanetan, Oñatin aurkitu zituen Selmak Ternuaz eta Kanadaz ari diren dokumenturik zaharrenetarikoa.

## KANADAKO ESPEDIZIOAK ETA AURKIKUNTZAK

Hemengo artxiboetako dokumentuek erruz azaltzen zituzten argibide garrantzitsuak egiaztatzeko aukera paregabea eskaini zioten Selmari 1977tik aurrera Ternuan eta Labradorren bertan eratu ziren espedizio arkeologikoetan. Huxley anderearen ekimenez abiatutako indusketei, zeukaten inportantzia konturatuta, kanadar gobernuak eman zien segida.

Uda desberdinetan burututako kanpainetan, anitz aztarna agertu ziren uretan nahiz lehorrean: animalien eta pertsonen hezurak, euskal teilen zatiak, koipea urtzeko labeen arrastuak edota urpean zeutzan hondoratutako arrantza-ontziak. Horietako bat genuen, esaterako, 1565an Red Bay-en urperatu zen Pasaiaiko **San Juan itsasontzia**; Selmak Oñatiko artxibotik ateratako argibide eta datu zehatzek ahalbidetu zituzten 1978an Parks Canada-ko urpekariek gauzatutako barku horren aurkikuntza eta berreskurapena. Horixe da, hain zuzen ere, Pasaia San Pedroko Albaola faktoriak azken urteotan berregiten diharduena.

Azterketak aurrera egin ahala, bere ikergaien inguruko hainbat artikulua publikatu zuen bateko eta besteko aldizkari espezializatuetan edota elkarlanean idatzitako liburuetan, ingelesez, frantsesez eta gaztelaniaz. Dena den, Selmaren ekarpen garrantzitsua ondoen laburbiltzen duen argitalpena **Los vascos y las pesquerías transatlánticas (1517-1713)** ikerlan luzea dugu. Beste lan batzuekin batera kaleratu zuen 1987an Donostiako **Etor** argitaletxeak, **Itsasoa** saileko 3. tomoan, Selma beraren zuzendaritzapean eta Enrike Aierberen ardurapean.

## HERRITARREKIN HARREMANAK

Norbaitek pentsa dezake Selma paper zahar eta liburu arteko munduan zeharo murgilduta eta itxita biziko zela. Baina, halako lanei ordu dezente eskaini arren, giza harremanetarako eta aisialdirako ere astia hartzen zuen. Oñatin eta beste zenbait lekutan mota desberdinetako ezagunak eta adiskideak zituen: kultura arlokoak, agintariak, herritar soilak, kale-tarrak nahiz baserritarrak. Paseatzea gustatzen zitzaion: herriko kaleetan, baserri giroko auzoetan, Arantzazu eta Urbia aldean, jendearekin berba eginez. Buruan zeukan proiektua zela eta, Euskal Herriko itsasaldea oso ondo ezagutzen zuen, baina baita barnealdeko paraje asko ere.

Natura errespetatu eta zaintzeko kezka azaldu zigun, hemen artean holako kontuek arreta gutxitxo pizten zutenean. Iñaki Linazasoro idazle eta kazetariarekin batera herriko **bazterrak eta errekek garbitzeko lehenengo kanpaina** antolatu zuen Oñatiko eskolatan. Orduan haurrak zirenak oroitzen dira oraindik gaur egun. Bestalde, Debagoienako kultura-ondarea zaindu guran, 1990 aldera lagun talde batek **Kapirixo** elkarteak sortu genuenean, informazio interesgarria eskuratu zigun Selmak arlo horretan aitzindaria eta eredugarria den Erresuma Batuko **National Trust** erakundeari buruz.

## BENETAKO LAGUNA

Gure artean bizi izan zen hamarraldietan ate askotara jo zuen informazio bila, laguntza eske nahiz lankidetzak eskaintzera. Ibilbide luze horretan era askotako harremanak izan zituen, alde edo moldez, Euskal Herriko hainbat erakunde eta talderekin, bilera, kongresu, hitzaldi eta argitalpenen bitartez. Hona horietako batzuk: jaurlaritza, aldundi eta udalak ez ezik, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak, Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia, Labayru Institutua, Barandiaran Fundazioa, Donostiako Untzi Museoa, Baionako Euskal Museoa edota Bilboko Merkataritza Ganbera, besteak beste.

Ibilera nekaezin horietan pertsona ugariarekin tratatzea egokitu zitzaion eta, lehenaz gain, adiskide gehiago egin zituen han-hemenka. Hartara, Euskal Herria sakon maitatu bazuen, euskaldun askorekin ere harreman estua eta adeitsua izatera iritsi zen. Geroago ere, jadanik Chichester-en bizi zela, sendo eutsi zien lur honekin eta hemengo adiskideekin zeuzkan lokarriari, batez ere egiten zizkigun bisitaldietan. Horregatik, azken aldera, batean eta bestean, jaso zituen esker onezko aitortpen eta omenaldi anitzen artetik Eusko Jaurlaritzak 2014an egin zion **Lagun onari** izeneko azpimarratuko gurek. Ondo merezia eta irabazia zuelako eta ia mende erdian **euskaldunon benetako lagun ona** izan genuelako.